

ANGELUKO IKHASLEAK

LAUGARREN ERAKASPENA-

1997-98ko IKHASURTEA-

I ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

OSO GUNEKO ERAKHASKUNTZA

1. Mariañok sinesten zuena sorginetan?
2. Errazue zertako.
3. Aipazkitzue haren zorizaitzak.
4. Harridura handia urkan zuena Parisen?

II

MARIAÑO ETA SORGINA

Segur, Mariañok ez zuen sorginetan sineste mikorik.

Auzoko Margaitak erraiten zion: "Gaizki habila!" Berak gatza ixurtzen zuen surat, ortzantza edo huntz baten oihua aditzen zuen aldi bakotx.

Mariañok ihardesten zion: "Ba eta hi xoro hutsa haiz! Buru-fuñia infrentzuz dun osoki, uste badun sua gazituz gaitzak baztertuko ditunala! Sorginek hedatu zituan sineskeria zozo horiek oro, bazterrak nahasten zituztela."

Gaixo Mariaño! Jakin balu zer ikasi beharko zuen egun batez bere aġabaren ofizioaz!

Ezen alaba bat bazuen, nigar onik egin-arazi ziona, Pariserat ihesi joan zelarik.

-Ene biziko dolu handiena da, oihu egin zuen Mariañok, bihotza zaurturik.

Alta ez zitzaizkon doluak faltatu! Ama 15 urtetan galdu zuen, aita 16-etan, senarra 30-etan, 15 ilabeteko seme bat hil zitzaion, bai eta 7 urteko alaba bat.

Malur horien gainerat emaiten badituztu ugalatzak hil abere- buruak, ogi harrabartuak, borda bat erreare etxearen erdiarekin, eta zombait auzi auzo gaixtoek pizturik, hor duzu emazte ile xuri horren nigar saminen kondua. Eta ororen buru, gelditzen zitzaion alaba bakararra Parise trixte hartara eskapatua. Ai, hori sobera zen! Ez zaitela harri, lauetan hogoi urtetan Mariaño arras kailu egina baitzen.

-Zato ene ikusterat, izkiriatu zion halere egun batez alabak.

Duda-mudan denbora batez egonik, azkenian amor eman zuen eta treina hartu zuen Pariseraino. Ez uste izan emazte xaharra burtxoratu. Ez treinak ez Parisek ez zuten estonatu. Balditu zuen gauza bakararra izan zen ikastea zer ofizio egiten zuen alabak. Etxe-atean izkiribu handiz emana zen: "Yvonne nécromancienne".

33- UKAN - Conjugaison familière Indicatif Présent.

<u>Objet singulier</u>	<u>Objet Pluriel</u>
Nik diat = diat = je l'ai	ditiat = ditinat = je les ai
Hik duk = dun = tu l'as	ditek = ditun = tu les as
Harek dik = din = il l'a	ditik = ditin = il les a
Guk diagu = diagu	ditiagu = ditinagu =
Zuek duzue = duzue	ditzue = dituzue =
Heiek die = die etc.	ditie = ditine = etc
Homme	H
Femme	F

III ADITZ IKASKUNTZA

31. Jakin balu
32. Zitzazikon
33. Dun, badun, ditunala
34. Zion
35. Zato-

UKAN - Suppositif (éventualité prochaine)  
- à présent -

<u>Objet singulier</u>	<u>Objet pluriel</u>
Nik banu (si je l'avais)	banitu (si je les avais)
Hik bahu	bahitu
Zuk bazinu	bazinitu
Harek balu	balitu
Guk baginu	baginitu
Zuek bazinitu	bazinituzte
Heiek balute etc	balituzte etc

32- IZAN - Régime indir. Indic. Imparfait  
Pluriel - Hez ziren = ils étaient

- Hez (eux) zitzazkitan (à moi) = ils m'étaient  
 " zitzazkizun (à vous) = ils vous étaient  
 " zitzazkion (à lui) = ils lui étaient  
 " zitzazkigun (à nous) = ils nous étaient  
 " zitzazkizuen (à vous) = ils vous étaient  
 " zitzazkien (à eux) = ils leur étaient  
 • Gu ginen = nous étions •  
 Gu (nous) gintzazkizun (à vous) = nous vous étions  
 " gintzazkion (à lui) = nous lui étions  
 " gintzazkizuen (à vous) = nous vous étions  
 " gintzazkien (à eux) = nous leur étions